2/2007 Legean onartutako metodologiarekin bat etorriz.

*28. artikulua.–* Ekarpen-koefizienteak.

Aurreko artikuluan zehaztatutako zenbatekoari ondoko ehunekoak ezarriz ateratzen da lurralde historiko bakoitzak egin beharreko ekarpena:

| | |
|---|---|
| Araba: | % 16,91 |
| Bizkaia: | % 49,94 |
| Gipuzkoa: | % 33,15 |

II. KAPITULUA
ZERGA IZAERAKO ARAUAK

*29. artikulua.–* Tasak.

1.– Oinarriaren ehuneko jakin bat finkatuta ez izateagatik edo oinarria moneta-unitateetan emana ez egoteagatik finkoak diren Euskadiko Ogasun Nagusiaren tasak igo egingo dira: 2008rako eskatzen ziren zenbatekoei, hain zuzen ere, 1,02 koefizientea aplikatzetik ondorioztatzen den kopururaino.

2.– Arestian adierazitako koefizientea aplikatu ondoren, bi hamartar dituzten tasak behera doituko dira, hirugarren hamartarra bostetik beherakoa bada, eta gora, bostetik gorakoa bada.

Sei hamartar dituzten tasei dagokienez, behera doituko dira, zazpigarren hamartarra bostetik beherakoa bada, eta gora, bostetik gorakoa bada.

IV. TITULUA

KONTRATATZEKO ETA GASTUA BAIMENTZEKO ARAUAK

*30. artikulua.–* Gastua baimentzeko arauak.

1.– Egitekoa den gastuari dagokion kredituaren izaera edozein izanik ere, 5.000.000 eurotik gorako gastuek Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko dute. Bada salbuespen bat, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoan sartutako erakundeetarako transferentziak egiten direnean edo Aurrekontuetan izen horrekin jasotako diru-laguntzak direnean; kasu bi horietan ez da baimenik behar izango.

2.– Erakunde autonomiadunek, 1.000.000 eurotik gorako hasierako aurrekontua duten kontratuak egiteko, dagokien sailburuaren aldez aurreko baimena beharko dute, edo, aurreko paragrafoaren kasuan, Jaurlaritzaren Kontseiluarena.

*31. artikulua.–* Kontratatzeko arauak.

Kontratazioaren arloan, Jaurlaritzaren Kontseiluari egokituko zaio aurreko artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako zenbatekoaren gainetik dagoen aurrekontua duten kontratuak baimentzea. Kasu horretan, kontratua baimentzearekin batera, gastua ere baimenduko da.

euros, de conformidad con la metodología aprobada por la Ley 2/2007, de 23 de marzo.

*Artículo 28.–* Coeficientes de aportación.

La aportación de cada territorio histórico será la resultante de aplicar a la cantidad consignada en el artículo anterior los porcentajes siguientes:

| | |
|---|---|
| Álava: | 16,91% |
| Bizkaia: | 49,94% |
| Gipuzkoa: | 33,15% |

CAPÍTULO II
NORMAS DE CARÁCTER TRIBUTARIO

*Artículo 29.–* Tasas.

1.– Las tasas de la Hacienda General del País Vasco que sean de cuantía fija, por no estar fijadas en un porcentaje de la base o no estar ésta valorada en unidades monetarias, se elevan hasta la cantidad que resulte de la aplicación del coeficiente uno coma cero dos (1,02) de la cuantía que resultaba exigible en el año 2008.

2.– Una vez aplicado el coeficiente anteriormente indicado, las tasas con dos decimales se ajustarán por defecto si el tercer decimal es inferior a cinco, y por exceso en caso contrario.

En el caso de las tasas con seis decimales, se ajustarán por defecto si el séptimo decimal es inferior a cinco, y por exceso en caso contrario.

TÍTULO IV

NORMAS DE AUTORIZACIÓN DEL GASTO Y DE CONTRATACIÓN

*Artículo 30.–* Normas de autorización del gasto.

1.– Será precisa la autorización del gasto por el Consejo de Gobierno cuando aquél exceda de 5.000.000 de euros, cualquiera que sea la naturaleza del crédito a cuyo cargo se realice, salvo que se trate de transferencias a las entidades integradas en el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi o subvenciones nominativamente asignadas en los Presupuestos, en cuyo caso no se precisará de tal autorización.

2.– Los gastos realizados con cargo a los presupuestos de los organismos autónomos se autorizarán por el consejero del departamento al que estén adscritos cuando excedan de 1.000.000 de euros, o, en el caso del párrafo anterior, por el Consejo de Gobierno.

*Artículo 31.–* Normas de contratación.

En materia de contratación, corresponderá al Consejo de Gobierno la autorización de los contratos cuyo presupuesto sea superior a la cuantía contemplada en el apartado 1 del artículo anterior. En tal supuesto, la autorización del contrato llevará aparejada la del gasto.